

“DBHko PARTE HARTZAILEAK BI TALDETAN BANATU BEHARKO LIRATEKE, LEHEN HEZKUNTZAN BEZALA”



Itziar Ondarra - Elgoibar Ikastola | DBH [3. saria]

Itziar Ondarra Elgoibar Ikastolako “Elogkraks” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du DBH kategoriako hirugarren saria.

- Orokorrean, nola baloratzen duzue Kosmodisean parte hartzearen esperientzia?

- *Ongi.*

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?

- *Teknologia berrien erabilera.*

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?

- *Oso pozik daude, baina ebaluazio-sistema hobetu behar dela uste dute.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- Aldaketa hori oso ona iruditu zaie. Wikia egitea izan da gehien gustatu zaiena.

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Taldean lan egitearen garrantzia (erantzukizunak hartzea, lana banatzea, guztien iritziak jasotzea, etab.).*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Onena: wikia eta Grapho Planeta txertatzea.*

Gutxien gustatu zaiguna: simulagailua, ikasleentzat zaila baita erabiltzea.

Hobetzeko: ebaluazio-sistema.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Ez dakit.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- *Ebaluazio-sisteman, ebaluatzaileak eta ebaluatuak ez lukete pertsona berberak izan behar.*

Irabazleen izenak ez lirateke amaierara arte argitaratu behar, talde horiek lehenengo postuetan doazenean ebaluazioan zigorra jasotzeko arriskua baitute.

DBH kategorian bi talde egin beharko lirateke, Lehen Hezkuntzan bezala (Neo eta Fisio). Alde batetik, DBHko lehen bi ikasturteak egongo lirateke eta, bestetik, hirugarrena eta laugarrena.

Adin-tarte horretan interesak oso ezberdinak izan daitezke.